

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ginekologiaren ama ezkutua



ATENAS, K.A. IV. MENDEA. Agnodize jaio zen goi mailako familia baten baitan. Txikitatik garbi eduki zuen mediku izan nahi zuela, baina Atenasko emakumezkoek, esklaboek bezalaxe, debekatua zuten medikuntza ikastea. Bere asmoei eutsiz, dirudienez aitaren onespina lortu zuen; ilea moztu, gizonezkoen arropak jantzi eta emakumea zela ezkutatuz Herofilo mediku ezagunaren ikasle bihurtu zen. Hasieratik diziplina berri batek piztu zuen emakume mozorrotuaren interesa: ginekologiak. Hala, azterketak ederki gainditu zituen eta ginekologo moduan hasi zen. Trebakuntzan eman zituen urteetan inor ez zen jabetu emakumea zela.

Mediku berriaren izen ona –eta faltsua– berehala zabaldu zen Atenasko emakume aberatsen artean. Eta, nonbait, inbidia ere abiadura berean zabaldu zen beste medikuen artean. Agnodizek “atenastarren emazteak limurtu eta galbideratu”

*Frine
Areopagoan,
Jean-Léon
Gérôme, 1861.
Frine bezala,
Agnodize ere
Areopagoan
epaitu zuten,
emakumezkoek
debekatuta
baitzeukaten
mediku izatea.*

egiten zituela esan zuten. Eta zurrumurrueetatik epaitegirako bidea oso laburra zen garai hartako Atenasen. Azkenean Areopagora eraman zuten, bi paziente bortxatu izana leporatuta.

Areopagoko epaileen aurrean, Agnodizek erraz utzi zuen ezerezean akusazioa: arropa erantzi eta emakumezkoa zela erakutsi zien. Baina, beste behin, erremedioa okerragoa izan zen. Gizonezko bortxatzaileei ez zieten heriotza zigorra ezartzen; medikuntza ikasten zuten emakumezkoek, aldiz, bai.

Horrenbestez, ginekologoa hiltzera kondemnatu zuten. Baina haren pazienteez, Atenasko aristokraziako emakumeek alegia, ez zuten mediku bikaina galdu nahi eta zigorraren aurka altxa ziren. Epaitegian bildu ziren eta Agnodize hilez gero beren buruaz beste egingo zutela mehatxatu zuten. Ondorioz medikua absolbitu egin zuten eta medikuntzan nahi zuen bezala jantzita aritzeko baimena eman zioten, gainera.

Hurrengo urtean Atenasko Kontseiluak bertan behera utzi zuen emakumezkoek medikuntza ikastea debekatzen zien legea. Hori bai, ezin izango zituzten gizonezkoak artatu.

Higinio erromatar idazleari esker iritsi zaigu Agnodizeren istorioaren berri. Lehen emakumezko medikua existitu izanaren beste frogarik ez dago eta Higinioaren testuak zalantza ugari sortzen ditu. Esaterako, Agnodize atenastarra zen eta Herofilok Alexandrian eman zuten bizitza osoa.

Agnodizeren istorioa egia ala mitoa izan, duela 2.300 urte Atenasko Kontseiluak lege bidegabea bertan behera utzi zuten eta emakumezkoek garaipen txiki bat lortu zuten.

Arrastoak

Segedako harresia arriskuan

2007AN, Segeda hiri zeltiberiarrean (Belmonte de Gracián, Aragoi) burutzen ari diren indusketetako zuzendari Francisco Burillok eta Raúl Lópezek harresiaren egoera tamalgarrira salatu zuten: antzinarako monumentua harri zatiak galtzen ari zen etengabe, nekazaritza jardueraren eraginez, bereziki. Espainiako Onda-

re Zuzendaritzak harresia zaharberritzeko eta babesteko ekimena jarri zuen abian, eta horretarako 114.000 euroko inbertsioa aurreikusi zuen. Baina arkeologoen egoera ez dela hobetu jakinarazi dute: lanak ezin dira abiatu lurra esku pribatuetan dauden bitartean, hau da, Belmonteko Udalak desjabetu arte.

